



HITZ POLISEMIKOAK

Batzuetan *poto* dirudiena ez da hala izaten, errima perfektua baizik!

Hori gertatzen da itxuraz berdina den oin bat errepikatzen denean baina **esanahi ezberdina** duenean.

Adibidez, bertso honetan.

BERRIZ

Oso herri polita
ez ote da **Berriz**
bere jende jator ta
monumentu **berriz**.
Inguruan dituen
herri denek, **berriz**,
kontra egiten diote
prentsan mila **berriz**.



Hau zer da: *poto* ala *hitz polisemikoa*?

Ea bereizten ditugun bertso hauetan zein diren **potoak**. Biribildu itzazu **potoak**.



Doinua:

***Dama gazte xarmant bat
Zortziko txikia (7/6 silaba)***

Atezainik ez dago
nora joan ote da?
Horregatik sartu naiz
area barnera,
baloia oso gogor
jaurti dut atera
baina atzelariak
buruz du atera.

Hurrengo jokaldian
nolako borroka,
nik bidean galdu dut
eskuineko bota,
aurrera jarraitu dut
jantzi gabe bota,
hala ere golera
ahal izan dut bota.

Azken minutuetan
a ze tragedia:
morea aurpegia
morea begia.
Hori egin didanak
ez dio egia
eta orain jartzen du
txintxo aurpegia.